

Merkataritza-jarduerak eta banku-negozio tipikoak sustatu dute 'core' sarreren igoera

Kutxabankek 385,2 milioi euroko emaitza lortu du hirugarren hiruhilekoan

- **Banku-negozioaren diru-sarrerak % 44 hazi dira, interes-sarreren bultzada eta aseguru-negozioaren ekarpenaren ondorioz, azken honek irabazien kontura 125 milioi emanda**
- **Inbertsio-funtsetan merkatu-kuota handitzen jarraitu du, harpidetza garbi gehien izan duen laugarren taldea izanik**
- **Hipoteken jarduera merkatuko batez bestekoaren gaintik igo da eta kontsumo-kredituak % 10 hazi dira**
- **Enpresen eta erakundeen bankak nabarmen hazi dira eta, ondorioz, Handizkako Bankaren mailegu-inbertsioa % 7,3 igo da**
- **Baliabide digital gehiago eskaintzearen ondorioz salmenta digitalek hazkundera izan dute, salmenta guztien % 46 baitira jadanik**
- **Berankortasun-tasak % 1,4an jarraitzen du, alor osoko baxuena berriro**
- **CET1 fully loaded ratioa 28 puntu hobetu da, % 17,5era arte**

2023ko urriaren 26an. Kutxabank Taldeak **385,2 milioi** euroko irabazi garbiarekin itxi du 2023ko hirugarren hiruhilekoa, 2022ko aldi berarekin alderatuta **% 53,8** hazita.

Inflazio altuak eta, ondorioz, interes-tasen hazkundera baldintzatutako egoera makroekonomikoan lortu ditu emaitza hauek, aurrezkoa eta maileguen eta inbertsioen eskaria nabarmen jaisten ari diren testuinguruan.

Ekonomiaren dinamismoak nolabaiteko moderazioa izan du eta datozen bi urteetarako hazkunde-aurreikuspenek beheranzko joera izan dute, batez ere jarduerak bilakaera okerragoa izan dezakeelako eta energiaren prezioak igotzen jarrai lezakeelako.

EBZk diru-politika samurtu duen arren, interes tasek goranzko igoerari eutsi diote. Inguruabar horrek ez du eragin oso nabarmenik izan bankuen berankortasunean, ez baitu okerrera egin. Nola nahi ere, finantzazioa garestiago izateak eskatutako kreditu berrien bolumenean eragin negatiboa ari da izaten.

Gainera, epealdi honetan Kutxabanken jarduna **aintzatetsi** dute EBA erakundearen estres probek. Beste behin, Estatuko **finantza-sistemako lehen bankua** da kaudimenari eta palanka-probei dagokienez, egoerarik kaltegarrienean.

Ekitaldi osoan bezala, **merkataritza-jarduera sendoan** eta **banku-negoio tipikoan** oinarritu dira Kutxabanken emaitzak, **% 44** hazi baitira, batez ere interesen marjinak bultzatuta.

Merkataritza-jardueraren indarra produktuen eta zerbitzuen kontratazioaren gorakada orokorrean nabarmendu da, finantzako **batez bestekoarekin alderatuta oso ona** izan baita. **Hipoteken, kontsumo-kredituen** eta **enpresen** finantzaketaren ekoizpen berria alorreko batez bestekoen gainetik dago, eta bankuaren beraren aurreikuspenak ere gainditu ditu.

Balantzetik kanpoko baliabideetan, Kutxabanke bere merkatu-kuotak handitzen jarraitu du, eta harpidetza garbi gehien izan duen laugarren finantza erakundea izan da, merkatuko sarrera garbi guztien % 13 bereganatu baitu.

Kutxabanke bere **banku digitaleko eskaintza eta bezeroekiko arreta** hobetzen jarraitu du. Produktu nagusien salmenta digitalak hazi egin da lehen bederatzi hilabeteetan. Aurreko urteko aldi beraren aldean gorakada nabarmena izan dute, batik bat irtenbide digitalen erabilgarritasun handiagoari esker. Kanal digitalen bitartez egin diren produktu eta zerbitzuen kontratazioak **eragiketa guztien % 46ra** iritsi dira, eta bezero guztien % **62** dagoeneko **erabiltzaile digitalak** dira.

Balantzetik kanpoko baliabideek kuota handitu dute


Kutxabanke **administratutako bezero-baliabideek** % 7,8raino hazten jarraitu dute, balantzetik kanpoko baliabideek eta Handizkako Bankaren harpidetzek bultzatuta. Honela, **77.935 milioi** eurora iritsi dira, **inbertsio fondoetan % 25** hazita, **% 12 eperako aurrezkian eta aurrezki-planetan**, eta **% 7 aurreikuspen produktuetan**.

Urte osoan Kutxabank Taldeak inbertsio-fondoetan harpidetza garbi gehien izan dutenen artean jarraitu du. Hirugarren hiru hilekora arte **harpidetza garbi** gehien izan duen laugarren taldea izan da, **2.546 milioi** euro bereganatu baititu guztira, hau da, merkatuko sarrera berri guztien % 13.

Taldea erreferentzia bat da bezeroentzako finantza-laguntzan, zorro-delegatuen eta horizonte fondoak bezalako eskaintzekin, erakargarriak tasa-igoeren inguruneetan, aukera ematen baitie bezeroei tasa-igoerez baliatzeko. Honela, inbertsio-fondoetan merkatuan duen **kuota hobetzen** jarraitu du.

Gaur egun Kutxabank Taldeak 25.000 milioi euro inguru ditu inbertsio-fondoetan eta diru-zorro delegatuetan kudeatuta, eta **% 7,43ko merkatu-kuotari** eusten dio Estatuan, iazko abendutik oinarrizko 39 puntu hazi ondoren.

Inbertsio-fondoen merkatu-kuotaren bilakaera (%)



Hipoteken negozioa indartzen

Interes tasen igoerak kredituaren bilakaera uzkurdu egin du. Hala ere, Kutxabanken **kreditu-inbertsioa** 47.000 milioitik gora **egonkor** mantendu da, bankuaren beraren aurreikuspenak hobetuta.

Egonkortasuna handizkako bankuaren segmentuan izandako igoerari esker lortu da neurri handi batean, hau da, **enpresei eta erakundeei** bideratutako kredituari esker.

Enpresen beharrei erantzuteko ematen den finantzazioa azken hiruhilekoetan hazten ari da, eta urteko lehen bederatzi hilabeteetan egoera hau berretsi ahal izan da formalizazio berrietan **3.518 milioi** euro sinatu ondoren. Azpimarratzekoa izan da enpresentzako eta korporazio handientzako finantzaketak izan duen gorakada, % 17koa.

Etxebizitzak erosteko kredituek ere merkatuko batez bestekoa baino bilakaera hobea izan dute. **Hipotekei** dagokienez, Kutxabanken **negozioa hobetu** da, nahiz eta merkatuaren baldintzak ez diren etxeak erosteko egokienak, interes-tasen igoerak erabat baldintzatzen baitu jardura hau.

Irailera arte, Kutxabankek guztira **2.524 milioi** euro bideratu ditu hipoteka mailegu berrietara, erakundearen aurreikuspenak erabat gaindituz. Azpimarratzekoa da aurtengo hirugarren hiruhilekoan (uztailetik irailera) formalizatu diren eragiketa berrien saldoa iazkoa baino askoz ere handiagoa dela, **%59** handiagoa hain zuzen ere.

Kontsumoko maileguak % 10 hazi dira, eta **% 60 Merkataritza Kreditua**, merkataritza sektorearen fakturazioaren indarra erakutsiz.

Kutxabank Seguros-ek 89.000 poliza berri inguru banatu ditu 2023. urtean zehar. Bereziki nabarmenak izan dira auto aseguruaren bilakaera, salmentak % 14 hazi baitira, eta osasun aseguruena, % 84 hazi baitira. Enpresa aseguruaren ekoizpena % 19 igo da eta Etxeko Multiarrikuena % 6.

Kutxabank Seguros-en polizen stocka **925.000**ra iritsi da eta jarduera honek guztira 125 milioi euroko diru-sarrera ekarri dio Taldearen emaitzen kontuari hiruhileko honetan.

Emaitzen kontua

Emaitzen kontuko marjina nagusi guztiek bilakaera ona izan dute.

Banku negozioaren oinarrizko sarrerak nabarmendu dira, % 44ko hazkundera izan baitute, **1.300 milioi** eurotik gora, batez ere Interesen Marjinak bultzatuta, 836 milioi euro ingurukoa izan baita.

Partaidetuen zorroaren ekarpen errepikakorra, batez ere dibidenduen eta bazkidetuen ekarpenaren bidez, **83 milioi** eurokoa izan da. Ondorioz, Marjina Gordina **1.295,8** milioi eurokoa izan da.

Kutxabankek bere **eraginkortasuna hobetzeko** eta **ustiapen gastuei eusteko** ahalegin garrantzitsua egiten jarraitu du, eta bien bitartean hornidurak indartzen jarraitu du.

Ustiapen gastuak ia % 7 handitu dira, pertsonalaren gastuen igoeraren eta digitalizazio prozesua areagotu izanaren ondorioz. **Ustiapen Marjina 809,8** milioi eurokoa izan da, iaz baino % 65 handiagoa. Taldeak egin ohi duen **zuhurtziatzko kudeaketaren** ildotik, kreditu-zorroaren eta gainerako aktiboan **saneamendu maila** handiari eutsi zaio, arlo honetara **275,1** milioi euro bideratu ostean.

Kutxabanken irabazi garbia **385,2** milioi eurokoa izan da, iaz garai berean baino % 53,8 handiagoa, **zergetara, tasetara eta kargetara 250** milioi eurotik gora bideratu ondoren.

Kutxabank Taldearen emaitzak, 2023ko ekaina

Milioi eurotan	2022ko iraila	%Δ
Interesen Marjina	836,2	94,6
Zerbitzuen eta aseguruaren sarrerak	464,5	-1,9
Banka negozioaren core sarrerak	1.300,7	44,0
Dibidenduak, baliokidetasunak eta ROF	82,8	-1,0
Beste ustiapen emaitzak	-87,8	110,9
Marjina Gordina	1.295,8	37,1
Ustiapen gastuak	-485,9	6,9
Ustiapen Marjina	809,8	65,0
Saneamenduak eta narriadurak	-275,1	59,4
Beste irabazi eta galerak	15,3	-41,3
Zergen aurreko emaitza	550,1	59,8
Zergak eta bestelakoak	-164,9	75,8
Taldearen emaitza	385,2	53,8

Adierazle nagusiak hobera

Kutxabankek finantza-alar osoko **berankortasun-ratiorik baxuenarekin** jarraitzen du, batez bestekoarekin alderatuta 207 oinarrizko puntutik gorako aldearekin. Indizea **% 1,4koa** zen irailaren amaieran.

Errentagarritasun-adierazleetan aurrerapen garrantzitsuak ekarri dituzte sarrera errepikakorrak sortzen gaitasun sendoak eta gastuen bilakaerak. Horrela, sei hilekoko **ROTE urteratua % 8,5ekoa** zen, **ROA %0,7koa** eta **eraginkortasun ratioa % 39,1ekoa** litzateke, ROF eta bankuen zergaren eragina kenduta.

Kutxabankek bere kaudimen sendoarekin segitzen du, **% 17,5eko CET1 fully loaded** ratioarekin, epealdi honetan ratio hori oinarrizko 28 puntu hobetu ostean.

Kutxabanki buruz

Kutxabank Euskadiko eta Kordobako finantza erakunde nagusia da. 700 bulego inguru ditu, jatorriko lurraldeetan kapilaritate handiena duen bulegoen sarea du, eta Andaluzian, Madrilan eta Katalunian presentzia nabarmena du. 5.000 profesionaletik gorako lantaldearekin, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sisteman kaudimen onena duen bankua da, eta Europako arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.